

anboto

Gazte talde baten ilusioa ikasgelatik plazara

Durangoko Ibaizabal ikastolako zazpi ikaslek
Errota musika taldea sortu zuten ikastetxean bertan;
lurretan dute hurrengo emanaldia, urriaren 3an / 16-17

ESKUBALOIA

Ibaizabalek iaz baino jokalaria eta talde gehiagogaz hasi du denboraldia

Ibaizabal Eskubaloi Taldea
100 jokalarira heldu da. Iaz
baino 15-20 gehiago dira.
Zazpi talde dituzte, gehienak
emakumeenak / 20

IURRETAKO JAIK / 11



DURANGOKO JAIK

Latzen, Xiberoots, Gar eta Leire Martinez, Durangoko jaietako kontzertu nagusien artean

Durangoko txosnek urriaren
9an zabalduko dute jai
eremua, Pantxikeren
etorreragaz eta Intxaurren
txapliguagaz / 2



Udal ordezkariak eta jai batzordea.



Txosnaguneko eragileak.

HIRIGINTZA

Hastear dira Izurtzako plaza goitik behera eraberrituko duten lanak / 8



Plazak gune estali bat izango du, besteak beste. IZURTZAKO UDALA

2.500€ IRABAZI

Atxikitako establezimen-
duetan erosten

- 5 herri: Abadiño, Berriz,
Durango, Elorrio, Iurreta
- 500€ herri bakoitzean
24 ordutan erabiltzeko

**Irailaren 23tik
urriaren 8ra arte
Sartu, erosi
eta irabazi!**

**ONGI
ETORRI**
DURANGALDEKO
MUGA-EREMUA

Zozketaren oinarriak
labur.eus/ongi-etorri-zozketa

Leire Martinez, Gar eta Txori Soro Gogoan, besteak beste, Durangoko San Faustoetan

Urriaren 10etik 18ra 169 jarduera egongo dira Durangoko San Fausto jaietan

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Durangoko Udalak San Fausto jaietako egitaraua aurkeztu du asteon. Jaiak urriaren 10etik 18ra bitartean izango dira eta beste urte batez ere giro alaiz beteko dituzte Durango kaleak. Guztira, 169 jardueraz osaturiko egitaraua prestatu dute jai batzordearen, udalaren eta elkarte, kultur talde eta kirol erakundeen arteko elkarlanari eskerrak. Egitarau horren barruan, denerik egongo da: musika, kultura, tradizioa... "Jaiak Durangoko egutegiko hitzordurik garrantzitsuenetarikoa bat dira, unerik proposena durangarrok kalera irten, elkarregaz egon, parte hartu eta jai giroaz gozatzeko. Urtero legez, elkarte eta kolektiboen inplikazioari eskerrak dira posible jai hauek, ospakizun zabal eta anitzez beterikoak, denentzako modukoak. Durangoko elkarte-sarea benetako altxorra da eta gure udalerriaren nortasunaren funtsezko parte bat", adierazi du Mireia Elkoroiribe alkateak.

Bestalde, Jessica Ruiz jaietako zinegotziak nabarmendu gura izan du aurtengo jaietan berdintasuna indartu dutela. "Emakumearen presentzia nabarmena



San Fausto jaietako aurkezpena.



GAReko kideak.

izango da aurtengo programazioan. Leire Martinez, Goxo Txaranga, Lasque fantaBAND eta Aroa Berrozpe arituko dira, besteak beste, sanfaustoetan. Aldi berean, programazioan kultur aniztasuna, tradizioa eta musika uztartu ditugu", esan du Ruizek.

Musikagaz jarraituta, egitarauan belaualdi arteko proposamen musikalak ere jasotzen dira: Gar, 11 ikusteko jaioak, Sorotan Bele Gogoan, Latzen eta Txori Soro Gogoan egongo dira, besteak beste. "Guretzat oso berezia da sanfaustoetako programaren parte izatea. Baina oraindino bereziagoa Durangon Landakoko sotoak eskura izatea. Durangon leku bat dugu artea eta kultura bultzatzeko, eta eskerrak eman beharrean gaude, horrelako espazioak beharrezkoak dira eta", esan du Jon Garcia musikariak.

Nobedade hauez gainera, beste hainbat ere izango da. Tartean, nekazaritza azoka berreskuratuko dute eta *Patxikotxu auzoz auzo* ekimena martxan ipiniko dute. Ruizek nabarmendu duenez, ekimen bi hauek jai batzordearen proposamena izan dira.

"Guretzako oso berezia da San Fausto jaietako programaren parte izatea"

JON GARCIA, GAR

Durangarrak pantailarik bako aisialdiaren alde agertu dira

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko parte hartze bidezko aurrekontuak prozesuaren amaierara ailegatu dira eta udalak dagoeneko zehaztu du zeintzuk proiektu pasatuko diren 2027ko udal aurrekontura. Herritarrek boto bidez aukeraturiko proiektuen artean, pantailarik bako aisialdi programa dago, gazteei begirakoa eta urte osoko iraupena izango duena. 70.000 eurogaz hornituko dute. *Durango Hormetan* proposamenak ere herritarren babesa jaso du, eta udalak 15.000 euroko diru atala gordeko du zeregin horretarako. Umeen eta gazteen artean euskarazko antzerkigintza bultzatzeko programa izan da aurrera egin duen beste proiektuetariko bat, baita jolasaren bitartez euskaraz bultzatzeko proposamena ere. Batak eta besteak 20.000na euro izango dute. Era berean, 10.000 eurogaz sustatuko dute emakumeek musikan duten erreferentzialtasuna, eta xake-taula erraldoi bat ere atonduko dute herriko guneren batean. 40.000 euroko aurrekontuagaz, azken hori.

504 durangarrek parte hartu dute proiektuak bozkatzeko fasean.

Durangoko txosnek Intxaurren txapliguagaz zabalduko dute egitaraua

Urriaren 9an zabalduko dute jai eremua, Pantxikeren bedeinkapenagaz. Etxolak 06:00ak arte egongo dira zabalik

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko txosnak prest daude herri mugimenduaren askotariko koloreekin janzteko. Urriaren 9an inauguratuko dute jai eremua, Landako Gunearen eta Plateruenaren artean. Eta gauzak behar den moduan hasteko, Pantxikegaz zeharkatuko dituzte herriko kaleak, Iruñerriko Broken Brothers Brass Band taldeko kideak lagun dituztela. Behin txosnagunera helduta, Intxaurre elkarteak ki-deek hartuko dute protagonismoa, haiek isiotuko dute-eta jai eremuko txapligua. Izan ere, Intxaurre

rek 40 urteko bidea bete du aurtun.

Egitarauan, ondo errotutako hitzorduak finkatu dituzte, hala nola paella txapelketa, Mañaria erreka jaitiera, Gazte Eguna, Etxera Eguna zein Mozorro Eguna. Azken horren gaia *Durangaldeko fauna eta flora* izango da. Alabaina, ekitaldi berriak ere batu dituzte programara; tartean, Maritxu Hankatxu eta Igurtzi Serrano drag artisten ikuskizuna, bermut-edan goiztiarra eta artisautza azoka. Izan ere, artisautza goizean Euskal Herriko hainbat



Txosna batzordeko kideak martitzenean aurkeztu zuten egitaraua.

sortzaile egongo dela iragarri dute txosnek. Ekitaldi bakoitzeko egunak eta ordutegiak *anboto.org* atarian kontsultatu daitezke. Txosnek azpimarratu dutenez, urte osoko lana da euren, eta ez txosnei edo herriko jaiei begira-

koa bakarrik. "Herriar guztiak zaudete gonbidatuta txosnetara etortzera, durangarrak izan zein ez, gazteak izan zein ez", esan dute. Halaber, erasoen kontrako protokoloa martxan egongo gela gogorarazi dute.

Garaiko bazterrek liluratu egin dute Aitana pop abeslaria

Jone Guenetxea GARAI

Aitana pop abeslari espainiarrak kontzertu bi eman zituen BECen joan zen asteburuan, eta artistak Garaiko bazterrek izan zituen ahotan abesti batetik besterako tarte batean: "Garai herrian lo egin dut. Ezagutzen duzue? 200 bat biztanleko herri txiki bat da eta oso polita izan da mendi artean lo egitea. Zuek hemen oso zoriontsuak zarete, ezta? Inbidia handia ematen didazue. Hemen bizitzea gustatuko litzaideke", nabarmendu zuen abeslariak. Bestalde, euskararen inguruan ere berba egin zuen. "Existitzen den hizkuntzarik sinestezinena da. Zuek hori jakitea gura dut", adierazi zuen.

J.D. DURANGO
DEVISE4KE proiektuak Kenyako landa-eremuetako hezkuntzan digitalizazioa eta prestakuntza aukerak bultzatzea du helburu. Azken urteetan, Kenyako, Alemaniako, Irlandako eta Euskadiko ikastetxe eta unibertsitateak elkarlanean aritu dira, eta, besteak beste, hiru landa-eskolan proiektu pilotua garatu dute. Maristak ikastetxea proiektu horretako parte da. Jonathan Mulwa eta Wycliffe Ogaga Kenyako Rongo Unibertsitateko irakaslea eta doktorea dira, hurrenez hurren, eta proiektuko kideak. Durangoko Maristak ikastetxean izan dira asteon, proiektuko beste hainbat kidegaz egitasmoaren berri ematen. **Zein izan da zuen eginkizuna DEVISE4KE proiektuan?** Wycliffe Ogaga: Kenyako kide nagusiak gara proiektuan, eta laguntza teknikoa eskaintzen dugu. Besteak beste, ikerkuntza, komunikazio eta teknologia (IKT) ekipamendua probatzeaz, irakasleak prestatzeaz eta proiektuko jarduerak koordinatzeaz arduratzen gara. Horrez gainera, tokiko eskolen parte-hartzea koordinatzen dugu, haien inpli-

"Ikasleak erdigunean ipintzen dituen hezkuntza eredu batera pasatu gura dugu"

WYCLIFFE OGAGA ETA JONATHAN MULWA KENYAKO DEVISE4KE PROIEKTUKO KIDEAK



Mycliffe Ogaga eta Jonathan Mulwa, Maristak ikastetxean.

kazioa aktiboa izan dadin eta proiektuaren baldintzekin bat etorri daitezten. **Zeintzuk dira Kenyako landa-eremuko ikastetxeen gabezia nagusiak, eta zeintzuk hobekuntza ekarri ditu proiektuak?** Jonathan Mulwa: Irakasleak ardatz dituen ikaskuntza sistema batetik ikaslea erdigunean ipintzen duen eta gaitasunetan oinarritzen den hezkuntza eredu batera pasatu gura dugu. Aldaketak erronkak dakartza, bereziki landa-eremuetako eskoletan, azpiegitura teknologiko eskasa dagoelako haietan. Askok ez dute elektrizitaterik, ezta IKT ekipamendurik ere, eta irakasleek prestakuntza behar dute eredu berrira egokitzeko. Proiektuaren bidez, gabezia horiei erantzun gura diegu, eskolei azpiegitura fotovoltaikoaren bidezko energia hornidura es-

kainita, irakasleak eredu berri-
ra trebatuta eta ikasleei tekno-
logia digitala eskainita: Tabletak,
iPad-ak... Horrela, ikasleek modu
aktiboan ikasi ahal izango dute,
eta lankidetzan, komunikazioa
eta gaitasun digitalak garatu
ahal izango dituzte. **W.O.:** Irakasle falta da beste
erronka bat: ikasle asko dago,
baina irakasle gutxi. IKT bali-
bideek ikasle gehiagorengana
heltzeko eta hezkuntza baliabi-
deak zabaltzeko aukera ematen
dute, plataforma digitalen bitar-
tez ikaskuntza prozesua osatuta.
Proiektuak, beraz, teknologia
eta irakasleen prestakuntza es-
kaintzen ditu, hezkuntza esku-
ragarriagoa izan dadin. **Zer suposatu du zuentzat Euska-
diko, Alemaniako eta Irlandako
erakundeekin elkarlanean aritzeak?** **Zer ikasi duzue elkarrengandik?** **W.O.:** Unibertsitate legez, proiektu honek nazioartean ikusgarritasuna lortzeko aukera ematen digu. Beste leku batzuetan egiten dena ezagututa, gure curriculuma garatzeko aukera ere badugu, nazioarteko estandarrekin bat etorri dadin eta prestatzen ditugun ikasleek lan merkatu globalaren eskakizunei erantzun diezaieten.

HILEROKO ZOKKETAK . POLITSIKORAKO ABANTAILAK . DESKONTUAK ANBOTOKI ZERBITZUETAN . ONURA FISKALAK

ZOKKEZOKNETA BEREZIA . ZOKKETA BEREZIA . ZOKKETA BEREZIA

Bi gau **** Gosaria Upategira bisita Ardo dastatzen

Anboto zurea ere bada

EGIN ANBOTOKIDE

eta irabazi

ASTEBURU BEREZI

BAT ERRIOXAN

mahasti artean

ANBOTOKIDE

40c urtean

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE

946 816 558

DEITU ETA EMAN IZENAI

ZOKKEZOKNETA BEREZIA . ZOKKETA BEREZIA . ZOKKETA BEREZIA

HILEROKO ZOKKETAK . POLITSIKORAKO ABANTAILAK . DESKONTUAK ANBOTOKI ZERBITZUETAN . ONURA FISKALAK

EHEren manifestazio nazionala Durangon, "faxismoari" euskaraz aurre egitera deitzeko

Mobilizazioa abenduaren 5ean izango da, 13:30ean, Landako Gunetik hasita

E.H. DURANGO

Euskal Herrian Euskaraz herri mugimenduko eragile euskaltzaleak Durangoko kaleak betetzera deitu du euskara "hizkuntza antifaxista" legez aldarrikatzeko. Antolakundearen berbetan, eskuin muturra eta faxismoa "hurbilago eta harroago" igartzen dira, bai instituzioetan bai kalean, eta "euskara ere jo-puntu" ipini dute. Horregaitik, "munduan zehar eskuina hedatzen dabilen garaiotan", Euskal Herrian Euskarazek inoiz baino garrantzitsuagoa deritza "olatu erreakzionarioaren aurka eta justizia sozialaren alde kaleak hartzeari". Alde horretatik, herri mugimenduko eragileen arteko aliantzak sendotzera deitu dute, "zelan ez, euskaraz". Antolakundeak Durangoko Azokako egunetan egingo du manifestazioa. Hitzordua honako hau da: abenduaren 5a, 13:30ean, Landako Gunetik hasita.

"Euskal Herriatik faxismoari aurre egingo badiogu euskaraz egingo diogu", esan zuten agerrialdian Intza Gurrutxaga eta Estitxu Uhalde EHEren bozera-mailak: "Badakigu euskara edo euskalduntasuna ez dela, bere



Intza Gurrutxaga eta Estitxu Uhalde EHEko kideak. EHE

horretan, eskuin muturreko ideien edo diskurtsoen antidotoa. Antigorputz sendoak ditugu, baina ez gaude salbu. Horregaitik, gure aldarria argia da: euskara faxismo orori aurre egiteko tresna izan dadila".

Pizkundeari eutsiz

Euskal Herrian Euskaraz erakundeak eta eragile euskaltzaleek alarma botoia sakatu zuten orain urte bi, euskara atzerapausoan sartu zitekeela ohartarazita. Handik etorri zen Pizkundea, Euskalgintzaren Kontseiluak

Bilboko Miribillan lehenengo eta Iruñeko kaleetan ondoren egindako mobilizazio sorta. Alde horretatik, Euskal Herrian Euskarazek "larritasunaren kontzientzia" hartzera eta "ekintzara" pasatzera deitu du: "Euskarak ezinbesteko baititu euskaltzale kontzientziatuak, eta, batez ere, antolatuak, euskararen borroka lehenengo lerrora ekarri eta indartuko dutenak. Bagabiltza, baina egoerak erritmoa bizkortzea eskatzen du, berehalakoan eta halabeharrez", adierazi dute.



Gaztetxe aurrean eraikiko dituzte apartamentu zerbitzudunak.

Urte amaieran hasiko dira Otxandion gazteentzako etxeak eraikitzen

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Udalak herrian etxebizitzak eraikitzeko hiru lankidetza hitzarmen ditu sinatuta Eusko Jaurlaritzagaz. Proiektu horien nondik norakoak aztertzeke, Egoitz Garmendia alkatea eta Mikel Abasolo zinegotzia Etxebizitza Saileko ordezkariekin elkartu ziren, irailaren 9an. Gazteentzako hamar etxebizitza zerbitzudun eraikiko dituzte lehenengo, gaztetxearen aurrean dagoen orubean. Lanak abendu amaieran edo urtarril hasieran hastea aurreikusit dute. "Otxandion etxebizitza duina eta eskuragarria izatea lehentasunezko erronka da herriaren etorkizunerako", esan dute udal arduradunek. Ildo

horretan lanean jarraituko dutela gaineratu dute, "gazteek eta familiek aukera izan dezaten herrian bizitzen jarraitzeko".

Azterketa

Udala azterketa bat egiten dabil herriko etxebizitza-errealitatea ezagutzeko, egungo egoera zein den jakinda datozen urteetan herritarren etxebizitza-beharri-zanei erantzungo dien "politika egokiak" diseinatzeko oinarriak zehazteko. Biztanleriaren bilakaera, etxebizitza-parkea eta haren ezaugarriak, eta etxebizitzaren erabilera aztertuko dituzte, eta, ikerketa hori osatzeko, herritarrei galdetegia helarazi diete haien iritzia jasotzeko.

Kirola egiteko makinak atondu dituzte Zaldibarko rokodromoan



Kirol-makinak, rokodromoko eremuan. ZALDIBARKO UDALA

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak kirola egiteko makinak atondu ditu rokodromoko eremuan. Makina hauek, hain zuzen ere: bizikleta eliptikoa, bizikleta estatikoa, korrika egiteko zinta, ergometroa (arrauna), hankak lantzeko makina, bularraldea eta sorbaldak indartzeko, multipress barra, posizio anitzeko bankua eta askotariko diskoak eta halterak.

Makinak erabiltzeko, herritarrek nahikoa izango dute udallexera joan eta 10 euroko finantzaren truke giltza eskuratzea. Orain arte rokodromoko erabiltzaile izan direnek ez dute giltzarik zertan eskatu. Eneritz Azpitarte alkateak iragarri du "herriko zerbitzuak hobetzen eta bizimodu osasungarria bultzatzen" jarraituko dutela. Era berean, makinak zaintzeko eskatu du.

Areitiori aitortza hunkigarria Iurretan



VALENTIN MUGARZA

A.B. IURRETA

Euskaragaz eta bertsolaritzagaz izan duen konpromisoa eskertu eta aitortu zioten Juan Mari Areitiori joan zen asteburuan. Iurretako Kofradien laguntzagaz, Durangaldeko Bertso Eskolak *Basamakatzak urdinsagarrari: Areitiori esker onez* ekitaldia antolatu zuen. Hainbat gonbidatu berezi elkartu zen Areitiozagaz.

Dendak Baik 2.500 euroko sari bat banatuko du 'Ongi etorri' kanpainan

Aritz Maldonado BERRIZ

Dendak Baik 'Ongi etorri' kanpainaren hirugarren edizioa ipini du martxan aste honetan. Tokiko merkataritza bultzatzeko eta babesteko asmoagaz antolatu du kanpaina, eta Abadiño, Berrizko, Durangoko, Elorrioko eta Iurretako merkatariek parte hartuko dute; aurreko edizioetan egin duten moduan, banderatzoz

bete dituzte herri horietako kaleak. Oraingoan ere, parte hartzaileek 2.500 euroko sari bat irabazi dezakete. Urriaren 8ra arte kanpainara batzen diren establezimenduetan erosketak egiten dituztenek parte hartu dezakete zozketan. Irabazleak 24 ordu izango ditu bost herrietako bakoitzean 500 euroko gastua egiteko.



Merkatariak eta ordezkari politikoak, Berrizen.

Jaioberridun familiak euskarara hurbiltzeko liburua kaleratu dute

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzako Udalak *Ongi etorri mundura, txiki!* liburua kalera-tu du. Orik 3 urtera arteko umeak dituzten familiei "laguntzeko baliabide" legez definitu dute proiektua. Gaur aurkeztuko dute, hilak 25, Zelaian. "Euskara gure nortasunaren parte da eta belaunaldi berriek lehenengo egunetatik etxean bizi ahal iza-

tea gura dugu: etxean, kalean, jolasean, abestien eta eguneroko une txikien bitartez. Liburua helburu horregaz sortu da, familia zornotzar guztientzat hurbileko tresna izateko, bakoitzaren hizkuntza errealitatea edozein delarik ere", azaldu du Ainhua Salterain Zornotzako alkateak. Udalak liburuaren 350 ale banatzea aurreikusten du.



Udal ordezkariak eta teknikariak.

Arrazolako Panarra Espainiako 50 okindegirik onenen artean zerrendatu dute

Global Bakery Forum topaketan jaso zuten errekonozimendua, orain aste bi

Ekaitz Herrera ATXONDO

Espainiako okindegirik onenentari bat etxe ondoan daukagu: Panarra. Halantzik ebatzi du Global Bakery Forum sariketako epaimahaiak, eta Estatuko 50 okindegirik onenen artean kokatu du Arrazolakoa. Irati Anakabe bertako beharginetari bat da, eta lantaldeko kideak "pozarren" daudela esan dio ANBOTOri. "Inguruko lagunek animatuta eman genuen izena txapelketan, eta hara!, saria etorri da. Pozik gaude. Honelako gauzek aurrera jarraitzeko indarra eta gogoia ematen dizkizute", azaldu du Anakabek.

Txapelketarako prozesua maiztzean hasi zuten, sariketara lanak aurkeztu zituztenean. "Ogi bi aurkeztu behar izaten dira lehiaketara. Barra bat eta ogi biribil bat. Gureak Bilbon aurkeztu genituen", azaldu du. Panarra-

koekin batera, Estatuko okindegi ugari egon da ogirik onenaren saria lortzeko lehian, bakoitza bere lurraldean antolatuta. Epaimahaiko kideek ogien hamar ezaugarri ebaluatu dituzte: itxura, usaina, mamia, azala, egos-

keta eta zaporea, besteak beste. Bilbao Global Bakery Forum sariketa okintzari buruzko Pan de Calidad hedabideak (Madril), ogizaleen Panàtics plataformak (Bartzelona) eta Bizkaiko Okinen Elkartek antolatzen dute.



Gabi Romero okina, sari banaketan.

San Migel Dudeako jaiak ospatzen jarraituko dute asteburuan



Zutik erromeria. IRATXE ETXEANDIA

A. M. ZORNOTZA

Atzo txupina jaurti zutenetik, jai giroan murgilduta daude Zornotzako San Migel Dudea auzoan. Gaur, iluntzean hasiko da auzoa girotzen, patata tortilla eta mus txapelketekin; Kittu taldeak borobilduko du gaua. Eta zapaturako eta domekarako egun osoko egitarauak prestatu dituzte; briska txapelketa, bazkari herrikoia eta Zutik taldearen erromeria egongo dira aukeren artean. Martitzenean amaituko dituzte jaiak, San Migel egunagaz.

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Iñigo Moran eta Jose Ignacio Azkarate, Traña-Matienan.



Bidaian bisitatutako leku batean.



Bidaian ibili diren motozaleak.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Jose Ignacio Azkarate 'Pitxu' eta Iñigo Moran motozale sutsuak dira eta hamahiru egunez Maroko gurutzatzen ibili dira. Abadiñarren berbetan, "esperientzia izugarria izan da, motozaleek bizitzan behin egin beharrekoa". **Zuen motoak hartu eta Marokotik biran ibili zarete. Zelan, ba?**

Jose Ignacio Azkarate: Taldetxo bategaz joan gara. 2023an ibilbide bera egin nuen, David izeneko gida bategaz. Berritoki ere beragaz joateko aukera sortu zitzaidan eta Iñigori komentatu nion ea etorri gura zuen.

Iñigo Moran: Hamahiru laguneko taldetxo bat ibili gara eta hamabi mototan ibili gara. Mundu guztiko jendea elkartzeko: Mexikokoa, Ameriketakoa, Uruguaiakoa eta Espainiar Estatuko zenbait lekutakoa.

"Motoan bidaiatu, kultura ezberdinak ezagutu eta leku zoragarriak ikusi ditugu Marokon"

JOSE IGNACIO AZKARATE ETA IÑIGO MORAN MOTOZALEAK

Nondik ibili zarete?

J.I. A.: Algecirasen hasi genuen ibilbidea. Handik El Yadidara joan ginen, eta hortik Essaouira eta Marrakechera. Marrakechetik, Atlas zati bat igarota, Dadeseko arroilara joan ginen. Handik Tichkako portua igo genuen, Afrikako Iparraldeko porturik garaiena, eta ondoren Todrako

arroilara joan ginen. Gero, desertuko atera joan ginen, eta handik Merzougako desertura. Ibilbidea amaitzeko, Fezera, Chefchauouenera eta Tetuanera joan ginen. Eta handik buelta berriro Algecirasera.

I. M.: Maroko aldean 2.500 bat kilometro egin genituen, eta, guztira, 5.100 bat kilometro, etxe-

tik joan ginen-eta bertara. Kilometro horiek guztiak hamalau egunean egin genituen.

Zelako esperientzia izan da?

J.I. A.: Esperientzia izugarria. Motozale guztiei ibilbide hori egitea gomendatzen diet. Motoagaz bidaiatu, leku zoragarriak ikusi eta kultura ezberdinak topatu ditugu Marokon. Herrial-

de eta pertsona zoragarriak ezagutu ditugu.

I.M.: Nik lehenengoz bidaiatu dut horrela. 'Pitxuk' animatuta joan naiz eta izugarria izan da, errepikatze modukoa. Hemen-dik pare bat urtera berriro bueltatzeko gogoz geratu naiz.

Baduzue beste bidaiarik buruan?

J.I.: Matienako kuadrillagaz asteburuero irteten gara. Gure bidaiatxoak egiten ditugu, eta halakoak egiten jarraituko dugu. Baina, orain, ez dugu horrelako bidaia luzerik egingo. Atsedan apur bat hartuko dugu. Hori bai, gidari beragaz Korsikara eta Sardinia joatea gustatuko litzaidake. Patagonia joatea ere amesten dut, baina, horretarako, fisikoki oso ondo egon behar da.

I.M.: Niri ere bidaia hori egitea gustatuko litzaidake, Korsikakoa eta Sardinia.

Herriko elkarten eta eragileen lana eskertu dute Abadiñon

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Zapatuan boluntarioen eguna ospatu zuten Abadiñon, eta herriko elkarte eta eragileek ordezkari politikoen aitoratza jaso zuten urte osoko lan desinteresatugaitik. Karrika antzerki taldeko kide bik gidatu zuten

saioa eta euren elkarriketa antzeztuan herriko 50 bat elkarren lana izan zuten ahotan, kirol edo kultur arloko taldeena zein askotariko jai batzordeena; baita, adibidez, elikagaien bankuko kideena zein auzo elkarteena ere.



Zapatuko talde argazkia.

Arietzu Mendi Taldeko sortzaileak omendu dituzte



ARIETZU MENDI TALDEA

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Mendizaleak taldeak antolatuta, joan zen zapatuan Arietzura mendi irteera egin zuten. Giro paregabea lagun, 25 bat lagun elkartziren. Irteera honen helburua lagun artean 10 kilometro ibilbidea egin eta Arietzuko tontorrera igotzea izan zen.

Behin Arietzuko tontorrera igota, orain 35 urte Arietz Mendi Taldea sortu zuten kideak omendu zituzten.

Horrez gainera, inguru horretatik Hiru Txikiak mendi lasterketa igarotzen zela baliatuta, lasterketa ikusi eta lasterkariak animatu zituzten mallabitarrek.

SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK



Urriaren 1etik 31ra

%20ko DESKONTUA


C.C. Eroski 48220 Abadiño · Tel.: 946 526 195 · www.homedesign.schmidt

Eskaintza sukaldeko altzari guztietan baliozkoa da. Kontsultatu zure Schmidt saltzailearen baldintzak parte hartzen duten dendetan.


Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE

URRIKO ZOZKETAK



Zelal Hotela
(Zumaia): Talaso saioa eta gosaria barne duen birentzako bonua.



Xiberu taberna
(Zornotza) bi gosari bikoitz.



Aukan Izozklaak.
6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)

IRAILEKO IRABAZLEAK

Alcamporen otzara
Txaro Otzerlinjauregi Iza.

Xiberu tabernan gosaria
Laura Oñate Urien.
Javier Alberdi Navarro.

Aukan Izozklaak
Aitziber Fernandez Madariaga.

Basa take away
Nere Portillo Garramiola.

Urteetako prozesuaren ondoren, Izurtzako plaza eraberritzen hasiko dira laster

Lanak faseka egingo dituzte eta zazpi hilabetetan amaitzea dute helburu


Joseba Derteano IZURTZA

Izurtzako plaza eraberritzeko lanak laster hasiko dira. Aste honetan edo hurrengoan hastea dute helburu, udal arduradunen esanetan. Udalak 515.203 euroko diru atala ipini du proiektu honetarako. "Plaza herriaren bihotza da guretzat. Erabilgarritasun handiagoa eman gura diogu eta eremu atseginagoa sortu gura dugu jendea herrigunera etorri dadin. Beti ere, aurretik zuen nortasunari eutsita", adierazi du Oihane Irastorza alkateak.

Lanak zazpi hilabetetan amaitzea itxaroten dute eta faseka egingo dituzte. Lehenengo fasean, plazako alde batean zentraturako dira; mediku kontsulta dagoen plazako aldean, hain zuzen ere. Ondoren, erdigunea eraberrituko dute, eta, azkenik, tabernako aldea.

Plazako elementuak

Plaza berriak eremu laua izango du, orain duen moduan, dantza saioak eta beste ekimen batzuk hartzeko. Gune horretan ur txorroak ere ipiniko dituzte. Gaur egun umeen parkea dagoen tokian gune estali bat sortuko dute, jesarlekuak izango ditue-



Plaza zelan geratuko den erakusten duen irudi bat. IZURTZAKO UDALA

na. Eta umeen parke berria Herriko Tabernako terrazaren ondora eramango dute.

Ibilgailuen plazarako sarbidea lekuz aldatuko dute: taberna ondotik plazaren erdira. Horrez gainera, oinezkoentzako sarbidea moldatu egingo dute osasun zentroaren ondoan; eskailera gutxiago izango du, eta arrapala bat.

Udalak azaldu duenez, plazako eraikin eta zerbitzu guztietarako sarbidea "bermatuta egongo da lanek irauten duten bitartean". Pilotalekua ere era-

bilgarri egongo da, baina udaletxe aldeko atletik izango du sarbidea.

Plazaren eraberritzea urteetako prozesuaren emaitza da. 2024an udalak herri batzarrak egin zituen herritarren iritzia jasotzeko. 2025eko ekainean, proiektua onartu eta esleipena abiatu zuten, baina ez zen inor aurkeztu. Arloko adituekin kontsultatu eta gero, proiektua egokitu eta berriro atera zuen lehiaketara. Bigarren ahaleginean Rekalde enpresari esleitu dizkiote lanak.

Bizkaiko hiru harri famatuk osatzen dute Angurretako obra berria

J.D. MAÑARIA

Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum euskal-herbeheretar artista bikoteak landutako *Litologi-*



Klaas van Gorkum eta Iratxe Jaio.

ka obra berria dagoeneko ikusgai dago Angurreta Harrobia Arte Espazioan. Harrobi horretarako propio sorturiko proiektua da eta bi urtez egongo da bertan ikusgai. Hiru harrobatik ateratako hiru harri apaingarri famatuk osatzen dute eskultura: Mañariko harri grisak, Angurretakoak; Ereñoko gorriak, Gautegiz Arteagatik ekarritakoak; eta Markinako beltzak. Harriek lautik sei tonara bitartean pisatzen dute. Artistek hainbat prozesuren bitartez landu dituzte harriak, iraganean arkitekturan eta eskulturan izaten zuten akabera berreskuratzeke; haien erabilerak historikoa ere ikertu dute.

Domekan Elorrioko Bira egingo dute; ibilbide bi izango dira

J.D. ELORRIO

Erdella Mendizale Taldeak Elorrioko Bira antolatuta datorren domekarako. Ibilbide bi daude aukeran. Luzea, 32 kilometrokoa, 07:30ean irtengo da, plazatik. Udalatx, Intxorta eta Erdella mendietatik ibiliko dira. Bira laburra 09:00etan hasiko da, plazan. 15 kilometro ditu eta Erdella izango da ibilbideko tontor bakarra. Aukera bat baino gehiago dago izena emateko. Zapatuan, 18:00etatik 20:00etara, udaletxe aurreko plazan egin daiteke hori; baita martxa egunean bertan ere, 06:30ean luzerako, eta 08:00etan laburrerako. Izen ematea www.erdellamt.com webgunean ere egin daiteke.



OSTALARITZA *gida.*

Iragarkia ipini gura
baduzu, deitu
688 731 402 zen-
bakira

XIBERU

 Xiberu Taberna
 xiberutaberna



Zezilia Gallartzagoitia, 9 ZORNOTZA
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea
ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia
eta atseгина. Ongi etorri Xiberura.

GAUARGI

 gauargitaberna



Dantzari, 4 behea IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan
mollete eta errazioak. Domeketan rabak
eta askotariko errazioak.

OLAJAUREGI

 Hotel Olajauregi
 hotel_olajauregi_jatetxea



Kurutziaga, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864

Dastatzeko menua 50
Karta / Taldeko menuak.
Galdetzeko deitu edo webean begiratu.


IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.
Ostiraletan pintxopotea!

Iñigo Herreroren eta Jabi Vidalen argazkiak lehiaketako onenak



'HARTU ZURE DENBORA'. IÑIGO HERRERO



'OIZEKO HAIZE ERROTAK IZKUTATU NAHIAN'. JABI VIDAL.

DURANGALDEA ASTEON

Hiru adinekori indarkeria erabilita lapurretan egitea egotzita, gazte bat atxilo

DURANGO Ertzaintzak atxilotu egin du Durangoko hiru adinekori ustez indarkeria erabilita lapurretan egin dien pertsona. 22 urteko gaztea da. Segurtasun Sailak jakinarazi duenez, Ibaizabal parkean gertatu ziren lapurretetako bi.

Bizkaiko elizbarrutiak Durangon egingo du ikasturte hasierako ekitaldia, domekan

DURANGO Bizkaiko elizbarrutiak Durangon hasiko du ikasturte berria, domeka honetan. Alkartuta lelopean, Bizkaiko hainbat lekutako parrokiak, taldeak eta komunitateak batuko dira egun osoko egitaraua ospatzeko. 13:00etan Bilboko gotzain Joseba Segurak parte hartuko du Andra Mariko basilikako ekitaldian.

Egun osoko egitarauagaz, Kulotxa jaialdia ospatuko dute zapatuan Elorrión

ELORRIO Kulotxa jaialdia ospatuko dute bihar, irailak 26, Elorrión. Aurten 10. aldia beteko du eta egun osoko egitaraua antolatu dute bertan. Besteak beste, artisau azoka, auzo bazkaria eta afari konzertuak egongo dira.

ANBOTOren Udako Argazki Lehiaketak baditu irabazleak. Durangaldeko kategorian Jabi Vidalen *Oizeko haize errotak izkutatu nahian* argazkiak irabazi du; eta Julen Naveranen *Durangaldearen*

zaindari argazkiak lortu du irakurleen botorik gehien. Durangaldetik kanpora, Iñigo Herreroren *Hartu zure denbora* argazkiak irabazi du. Lander Ruedaren *Bakeak* lortu du botorik gehien.

POLITIKAN

Plateruena Musika Aterpea (H)abian da

PAULE SANCHEZ
EAJ

Plateruena Musika Aterpea proiektu garrantzitsua da; EAJ-PNV-koontzat, estrategikoa.

Hala ere, ezin da ahaztu proiektu arrakastatsuek edukiontzi erakargarri eta moderno batekin bakarrik ez eta, kalitatezko ideia, aliantza eta edukiekin ere bete behar direla. Hori da EAJtik egiten ari garena eta Musik(H)abian ekintzailatza programa horren adibide argia da.

Idéia on bat ezagutza, orientazio eta sareko profesionalekin ehuntzen bada, aurrera egiteko aukerak nabarmen igotzen direla ezin da ukatu. Horretan, formakuntza funtsezkoa da eta bide hori ez dugu edozeinekin egiten.

Musika Bulegoa sektorean erreferentziazkoa da eta bere parte-hartzeak berresten du Plateruena-arekin norabide onean goazela: kalitatea, profesionalizazioa eta etorkizuna uztartzen ditu. Nor garen eta nondik gatozen ahaztu gabe.

Durangarrok ekintzaileak gara eta horrek musikan isla izan behar du. Euskaldunak gara eta gure hizkuntzak eta gure kulturak etorkizuna izatea nahi dugulako, sortzaile eta ekintzaileei aukera berriak eskaini behar dizkiegu. Talentua dago eta hori hazi eta emankorra izateko baldintzak sortzea gure betebeharra da.

Jeltzaleok egin dugu errealtate hori eta dagoeneko martxan da. Betikoen zarata nahien eta oztopo guztien gainetik, Plateruena Musika Aterpea (H)abian da.



Hazparneko saioko irudi bat.

Altubek eta Bizkarrak asteburuan hasiko dute Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa

DURANGALDEA Hasi da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa eta bertan, Txaber Altube, Aitor Bizkarra eta Gorka Pagonabarraga arituko dira. Zapatuan Altubek abestuko du, Altsasun, eta domekan Bizkarrak, Lekeition. Pagonabarragak urriaren 11n ekingo dio txapelketari, Agurainen.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Defie Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua





IURRETAKO JAIAK 2026



**Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!**



Iurretako
Eleizateko Udala

ASIMAIR
COMPRESORES

**SALMENTA ETA
ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA**

Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16 · 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415 · asimair@asimair.com
www.asimair.com

Belar
Metal Casting

**BURDIN NODULARRAREN
GALDAKETA**

Padureta Industrialdea 4
48215 Iurretako (Bizkaia)
Tel.: 943 03 80 79
comercial@belarmc.com
www.belarmc.com

IURRETAKO JAIK 2026

IRAILAK 25

- **17:30** Porrotx eta Marimotots 'Zerua lapurtu dute' ikuskizuna plazan. Euria eginez gero, Maiztegiko frontoian.
- **18:30** Bingo Musikala Etxegon.
- **20:00** Mus txapelketako finala.
- **20:00** Oihan Vega umeentzako diskofesta Askondon.
- **21:00** Oihan Vega helduentzako diskofesta Askondon.

IRAILAK 26

- **8:30** Iurretako XV. Mendi Martxa plazatik.
- **9:00** Bihotzez txapelketa Larrako zelaian: Haurrak. (Iurretako Kirol Taldea).
- **13:30** Paella txapelketa: Paellen aurkezpena (Tabernariak antolatuta).

- **15:00** Bihotzez txapelketa Larrako zelaian: Kadeteak. (Iurretako Kirol Taldea).
- **16:00** Bizkaiko Kluben arteko txapelketako esku pilota eta pala partiduak Kepa Arroitauregi frontoian.



- **19:00** Durangoko orfeoiaien kontzertua elizan.
- **21:30** Kontzertua Askondon: Rumbo Tijuana.
- **22:30** Kontzertu gaba plazan:
 - Zeker
 - Sedientos de Cumbia
 - Euskoprincess.
- Ondoren, Txirri eta Mirri MJak.

IRAILAK 27

UMEEN EGUNA

- **07:00** Dultzaineroak plazatik eta gaupaseroen argazkia.

IURRETA Antzerkia Porrotx eta Marimotots, 'Zerua lapurtu digute'. Maiztegiko frontoian, irailaren 25ean, 17:30ean

- **10:00- 13:30** Kotxe klasikoaren erakusketa Maspeko aparkalekuan. Ondoren, sari banaketa eta paella solidarioa (irabaziak Geu Be elkartearentzat izango dira).
- **10:00** Ume eta gazteentzako ekintzak plazan (Indarpak eta Heki elkarteek antolatuta). Euria bada, Askondoko karpan.
- **17:00** Ume jolasak eta Maiztegiko ikasleen dantza erakustaldia plazan.
- **18:30** plazan.
- DJ Kaktus.

IRAILAK 28

SAN MIGEL BEZPERA

- **12:00** Jaien hasiera Montoitik.
- Ondoren, dultzaineroak eta Kittu txaranga herrigunetik zehar.
- **14:00** Nagusien bazkaria Askondon.
- **14:30** Gazte bazkaria plazan.
- **18:30** Ohiturazko Doniel Atxa jasotzea. Jarraian, Iurretako Dantzarien azken entsegua.
- **22:30** Aittu erromeria plazan.

IRAILAK 29

SAN MIGEL EGUNA

- **10:30** Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.
- **12:00** Iurretako Dantzariak plazan. Ondoren, igel txapelketa plazan.
- **18:00** Iurretako Dantzariak plazan.
- **20:00** Erromeria: Gorka eta Hekthor

IRAILAK 30

- **19:00** Bakarrizketak plazan: Mirari Martiarena, Aitor Basarrate eta Julen Pagazaurtundua.

URRIAK 1

- Umeen eguna barraketan.
- **18:00** Bingo tonbola intergenerazionala eta txokolatada Askondon.





**Gosariak
Pintxoak
Errazioak**





662 505 682
Ibai Ondo



"La Candra"

EGUNEKO MENUA

ASTE BURUETAN

KARTA



BARBERA URDIN 2A COADRA
BONETA BARRIALA, 10



GOIURIA ERRETEGIA

Bizkaiko jatetxe klasiko honetan jatea plazer hutsa da, duen terrazarekin eta ikuspegi ikusgarriekin. Gozatu egur-labearen egindako txuletoia, txerrikumea eta arkumea, txingarretan egindako arraina eta eguneko menuak.

Goiuria auzoa, 16
Erreserbak 662 915 621 telefonoan
Astelehenetan itxita atsedenaldiagatik

  **asadorgoiuria**



Gauaigi
Dantzari, 4 - behea
IURRETA



Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz...

JUAN OROBIOGOITIA BHI

**GOZATU,
ZAINDU ETA
ERRESPETATU.
JAIK
DENONAK
DIRA**



**Olaburu 3
IURRETA**
Tel.: 94 428 80 00
www.oroibioigoitiabhi.hezkuntza.net



**KALITATEA
HEZKUNTZAN**


Euskal Jaizagaria Zuzendaria


Fundatzailea: Euzko Legea



IURRETA Jaiei hasiera
Doniel Atxa eta dantzarien
azken entsegua. Iurretako
plazan, irailaren 28an,
18:30ean.

URRIAK 2 PESCAITO EGUNA

- **19:30 El Reciclador 10**
bakarlariaren kontzertua
Dantzari plazan.
- **20:30 Tortillen aurkezpena**
Dantzari plazan.
- **22:00 Bertso saioa** Kepa
Arroitajaregi frontoian. **Maddi**
Ane Txoperena, Nerea
Ibarzabal, Maialen Lujanbio,
Unai Iturriaga, Amets Arzallus.
Gai jartzailea: Ainhoa Urien.
- **00:00 Erromeria** plazan:
· *Oxabi.*
- **Ondoren,**
· *Xaukena Xauk*
· *Totozer M.J.*

URRIAK 3 MOZORRO EGUNA: APIRILEKO FERIA

- **12:30 Mozorroen kalejira:**
Askondotiik hasita, herriari itzulia
egingo diote..
- **13:00 Poteo girotua Josepa**
Kale-Kale taldeagaz.
- **15:00 Herri Bazkaria** Askondon.
- **Ondoren, kuadrila ikuskizuna.**

- **18:00 Sakatu elektrotxaranga**
herrian zehar.
- **22:00 Kontzertuak** plazan:
· *Skabidean*
· *Errota.*
- **Ondoren,**
· *L3S x Trixi*
· *Dixi M.J.*

URRIAK 4 ERROSARIO EGUNA

- **10:30 Dantzari eta agintarien**
kalejira Montoitik plazara.
- **11:00 - 14:00 XXVI.**
Nekazaritza eta artisautza
azoka Olaburun.
- **12:00 Dantza saioa** plazan.
Talde gonbidatua (Xareu d'
Ochobre, Avilés) eta Iurretako
Dantzariak.
- **18:00 Herri kirol erakustaldia:**
Iparraldeko jokoak, aizkolariak
eta harri jasotzaileak.
- **19:00 Iurretako Dantzariak**
plazan. Ondoren, jaietako errifen
zozketa.
- **20:30 Herri afaria eta erromeria**
Lorraz taldeagaz, plazan.
- **22:00 Jaiei amaiera** ohiturazko
bertsoak kantatuta.

INDAR XSPORT
BOXEO • KICKBOXING • NO GI • K1 • MUAY THAI
INDARRA • OHOREA • DIZIPLINA

Padureta ind., 3C Lourdes Etorbidea, 8
Iurreta, Bizkaia Elorrio, Bizkaia
indar.xsportseries@gmail.com 627-868-891
forjasdeberri @indar.xsport

IK IURRETA KOPISTEGIA

Negozio hau
oso bizirik dago
eta zurea
izan daiteke.

INFORMAZIO GEHIAGO
94 418 90 55 - info@dema.eus

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Arzobia 10 B industrialdea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberitzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A,
BERRIZ
658 758 42
info@jaioabarnizatuak.com
www.jaioabarnizatuak.com

Forjas de Berri

Taberna Berri Ind., 1A
48215 Iurreta, Bizkaia
+34 94 652 65 20
comercial@forjasdeberri.com
www.forjasdeberri.com



"Iurretaz lotura handia dut eta esperientzia hori baliagarria izan zait kartela egiterakoan"

EMMA AGUILAR JAUREGI JAIETAKO KARTELAREN EGILEA

Joseba Derteano IURRETA

Emma Aguilar Jauregi (Artea, 1992) kartelak iragarriko ditu aurtengo San Migel jaia. Aguilar ez da bertakoa, baina aspalditik du hartu-eman herriagaz. Doniel Atxa karteleko elementu zentrala dela, jaietako beste hainbat osagai sartu du kartelean. Koloreei dagokienez, Iurretako Elizateko banderaren koloreak aukeratu ditu.

Artearra zara, baina ondo ezagutzen duzu Iurretan.

Bai, eta esperientzia hori oso lagungarria izan zait kartela diseinatzerako orduan. Ez naiz iurretarra, baina lotura handia dut herriagaz. Tailerrak eman ditut institutuan eta Abadetxean, jaietako kamisetak eta zapiak serigrafiatzen ditut... Jai batzordeak beti ondo helarazi dit Iurretan eta jaiak zer diren, eta jaietan ere egon izan naiz.

Hasieratik argi izan duzu diseinuan zer bide hartu ala kartelaren hainbat bertsio izan duzu buruan?

Lehenengo, ondo irudikatu behar izaten dut kartela neure buruan, eta gero hasten naiz paperean zirriborroa egiten eta zenbait konposizioz jolasten. Horren ondoren, beti dago denbora elementuak edo konposizioa aldatzeko. Iurretako kartelaren kasuan, hasieratik argi neukan nondik jo. Marraztu nuen lehenengo bozetoa gustatu egin zitzaizen eta horregaz jarraitu nuen.

"Batzuetan nire konfort-zonatik irten eta beste estilo batzuk lantzea gustatzen zait"

Kartelari begiratuta, Doniel Atxa da lehenengo begiratuan arreta ematen duen elementua. Zergaitik aukeratu zenuen irudi nagusi legez? Iurretarek Doniel Atxa jasota hasten dituzte jaiak, eta unea



Jaietako kartela.



Izurtzako jaien barruko Gertufest jaialdiko kartela ere diseinatu du oraintsu.

Dantzari auzunea, 6
behea, Iurreta

944 669 357

bodeguillaiurreta

IRIARTE
burdin lanak

Mallabiena Industriegunea SAPU.T,
Pab. 11-15
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel. 946 814 890
Fax: 946 816 245
contacto@caldereriariarte.com

SGS

www.caldereriariarte.com

IURRETA
HARATEGIA
FRUTA - DENDA

Bixente Kapanaga, 4
IURRETA
Tel.: 687 568 200

BANOS
IURRETA

Erakusketa eta komuneko
osagarrien salmenta

ITURGINTZA
BEROGAILUA
GASA

Tel. /Faxa: 946 202 433
NICO: 644 705 174
E-maila: b.iurreta@yahoo.es

Maspe kalea, 4 - 48215 Iurreta

Ondo pasa
Jaietetan!

ARRIBIDE
GASOLINDEGIA

946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA
estacionservicio@arribide.com
arribide.com

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industriegunea (Orozqueta errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

ofizinako telefonoa: **682296161**
tallerreko telefonoa: **646762022**
e-maila: oficina@amayaaautoreparaciones.com
www.amayaaautoreparaciones.com

berezia izaten da herrian. Omenaldi moduko bat egin gura nion kartelean.

Beste hainbat elementu ere ageri da kartelean.

Bai. Esaterako, dantzarien abar ketak, dantzariak lotura handia dutelako jaiekin eta herriagaz. Irudi hori ipintzea garrantzitsua iruditu zitzaidan. Kartelean sua ere islatu dut, jaien azken egunean jaietako zapia erre egiten delako. Bestalde, aurtengo mozorro egune ko gaia Apirileko Feria denez apain-orrazi bat gehitu dut kartelean. Gero, Doniel Atxaren azpiko aldean eskailera batzuk ipini ditut, jendea ongi etorria izango dela adierazteko. Gonbidapen bat da: "Igo zaitez plaraza Doniel Atxa ikustera".

Lehenengoz ikusi nuenean, plaza tik elizara igotzeko dauden eskai lerak etorri zitzaizkidan burura.

"Doniel Atxaren azpian eskailera batzuk daude, jendea ongi etorria izango dela adierazteko"

Horixe zen intentzioa. Ideia argazki batetik hartu nuen. Eliza ko arkupeetik plazarantz aterata ko argazki bat da, eta eskailera eta Doniel Atxa ikusten dira. Kartelerako elementu interesgarria iruditu zitzaidan.

Karteleko koloreei buruz zer diozu? Iurretako Elizateko banderaren koloreak aukeratu ditut. Dantzariak erabiltzen duten bandera da, oso polita, eta kolore erakargarriak ditu. Hasieratik argi nuen kolore horiek erabiliko nituela.

Aurretik izan duzu esperientziarik kartelgintzan?

Beste arlo batzuetan gehiago aritu naiz; adibidez, kamiseten diseinuan eta antzerakoetan. Horretara ohituago nago. Torontile da nire marka. Kartelgintzan ez dut hainbesteko esperientziarik. Iurretakoaz gainera, Izurtzako jaien barruan egiten den Gertufest jaialdiko kartela diseinatu dut. Jai hauek irailean izan dira. Beste kartel batzuk ere egin ditut, baina nire estiloagaz hauxe izan da lehenengoa. Iurretako kartelean gehiago ikusten da Torontile proiektuaren atzean dagoen lan keta hori. Jendeak errazago identifikatzen du nire estiloa. Baina,



Torontile proiektuagaz eskuz estanpatutako sorkuntzak egiten ditu.

gero, nire konfort-zonatik irten eta beste estilo batzuetako gauzak egitea ere gustatzen zait. Erronkak gustatzen zaizkit.

Aurtengo jaietan egongo zara?

Irailaren 28an han egotea espero dut. Asko gustatzen zait

jaien hasiera: Doniel Atxa, dantzariak...

Beste ezer gehitu gura duzu?

Eskerrak eman gura dizkiet jai batzordeari eta Iurretako herriari kartela egiteko nigan izan duten konfiantzagaitik.



Garage SAN MIGUEL 

Kutxa automatikoen mantenua
Mekanika orokorrean
Zerbitzu bizkorra
Mantenua
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Diagnosia
IATaren aurrekoa
Aire egokitua

Dantzari Auzunea, 8 IURRETA
94 681 14 79 / 628 233 584
www.garajesanmigueldeiurreta.com

 **MOINBE BERRIZ S.L.**
MONTAJES Y REPARACIONES INDUSTRIALES BERRIZ

Instalazioak eta konponketak:
PRENTSA HIDRAULIKOAK
PRENTSA MEKANIKOAK
ELIKAGAILUAK
MAKINEN BERRERAIKETA

Arriandi Industrialdea, E - 37
Tel.: 94 681 24 06 - Mug.: 609 34 87 76 - Fax: 94 681 50 89
moinbeberrizsl@gmail.com / 48215 IURRETA / Bizkaia

 **ARRIAUNDI EGURRAK, S.L.**

Santa Maña, 8
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: /Fax: 946 812 347
arriandiegurak@hotmail.com

INSTALAZIOAK ETA BERRIKUNTZAK

ALDA S.L.

- ITURGINTZA
- BEROGAILUA
- GASA
- IGELTSEROTZA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Uralde, 8 - behea
48215 IURRETA
Tel.: 946 812 086
cons.alda.sl@gmail.com

Aritz Maldonado IURRETA

Durangoko Ibaizabal ikastolak elkartu zituen Gaizka Olea (bateria), Heiko Nabera (gitarra), Maren Rodrigez (saxoa eta ahotsa), Amaia Sagastizabal (akordeoia), Jone Berrizbeitia (pianoa), Oihane Elgezabal (ahotsa) eta Lier Eizagirre (baxua) gazteen bideak; bertako jaialdi baterako batu zen zazpikotea, eta ezer planeatuta izan ez bazuten ere, urte eta erdiren ondoren plazak dantzan ipintzen jarraitzen dute elkarrengaz. Hurrengo hitzordua urriaren 3an izango dute, Iurretako sanmigel jaietan. Lier Eizagirrek ANBOTOr kontatutakoaren arabera, "gogotsu" daude hitzordurako; gainera, euren gustuko Skabidean taldeagaz partekatuko dute oholtza.

Zelan sortu zenuten Errota?

Hainbat herritakoak gara, baina denok Durangoko Ibaizabal ikastolan batu ginen batxilergoa ikasteko. Ikastolako festa batean jotzeko batu ginen, bakoitzak instrumentu bat jotzen genuen eta. Jaialdi horren ondoren, entseatzeko jarraitzea erabaki genuen. Proiektuari forma ematen hasi, eta urte eta erdi geroago hemen jarraitzen dugu.

"Urtero joaten gara Iurretako jaietara; aurten, gainera, bertan Skabidean taldeagaz jotzea berezia izango da"

LIER EIZAGIRRE ERROTA TALDEKO KIDEA



Errota taldea.

URALDE
HORTZ KLINIKA

Uralde 1, behea
48215, IURRETA, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

Jaixek herritik eta herrixentzat. Ondo pasau San Migeletan!

IURRETAKO JAI BATZORDEA

Parques y Jardines
Abadillo, S.A.

**LOREZAINZA · KIROL ZELAIK
HIDROEREITIA · GOLF ZELAIK**

Gaztariatza auzunea
IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 813 793
946 812 633 · 946 215 580
Faxa: 946 819 082
parques@parquesjardines.euskalnet.net

txirula
MUSIK
est. 1979

www.txirula.com

Pol Ertzila, Pab 5 n° 20 Iurreta
48215 Bizkaia
94 681 14 43
info@txirula.com

HEKI
HERRI KIROL
BLOK

Tel.: 656 782 552
hekiurreta@gmail.com

Urteentzako erakustaldiak eta antolatutakoak

Parriaundi

—BERTOKO OGIA · BENETAKO OGIA—

info@parriaundi.com · www.parriaundi.com

Arriandi industriagunea, 9
Tel.: 946 812 148

Zuen kontzertuak jendetsuak izaten dira. Horrek ere lagunduko du proiektuagaz jarraitzeko.

Bai. Eta, egia esateko, ez genuen horrelako ezer espero. Horrelako gauza bat planeatuz gero, ez litzateke horrela irtengo. Oso pozik gaude, ikusten dugulako jendea etorri egiten dela, oso ondo pasatzen duela, eta horrek, jakina, jarraitzeko motibatzen gaitu.

Motibazio hori gakoa izango da herri desberdinetako zazpi kide elkartzeko. Zelan konpontzen zarete entseatzeko?

Batxilergoan egon ginen bitartean, denok antzeko ordutegia genuen eta zeozer gehiago entseatzeko lortzen genuen. Orain unibertsitatean gaude, bakoitza punta batean ikasten, eta ez da erraza izaten elkartzeko entseatzeko. Hilean behin entseatzen ahalegintzen gara, edo behintzat kontzertuen aurretik behin elkartzeko. Asko pentsatu barik aritzen gara, ero-eroan, eta ea zer irteten den. Kontzertuak hurrengo kontzertuen entsegu lege ere baliatzen ditugu; ahal dugun moduan konpontzen gara (barrez).

Azpiegitura aldetik ere ez da erraza izango.

Zornotzara joaten gara entseatzera; udalak eskaintzen dituen lokaletan elkartzeko. Nahiko erdigunean geratzen da denontzat, eta logistika aldetik ere komeni zaigu hori, taldekideok ez daukagulako gidabaimenik. Gurasoek eramaten gaituzte entseguetara, kontzertuetara edo dena delakoetara, eta, beraz, eurekin ere oso eskertuta gaude. Bestela, proiektua ez litzateke bideragarria izango. Aurrekoan Areatzan (Bizkaia) jo genuen, eta instrumentu guztiak eraman behar izan genituen, gainera; han egon ziren gure zain, guk jo bitartean.

Udan hainbat lekutan ibili zarete. Zelanbait esatearren, hau lehenengo uda izan da apur bat serio hartu duguna, eta zortzi bat kontzertu izan ditugu. Aukera izan dugu, adibidez, Donostiako Aste Nagusian jotzeko, eta hori

ez genuen espero, jakina. Areatzan eta Durangon kontzertu batzuk jo ditugu. Oso gustura gaude. Oraindino ezin ditugu kontzertu asko lotu, ez garelako gai gure kabuz funtzionatzeko; beste jende baten menpe gaude, eta, hori dela eta, ezin gara ibili beste talde batzuk ibiltzen diren moduan asteburuero jotzen, eguen, bariku eta zapatu, edo egun berean kontzertu bi, baina gustura gabiltza horrela ere. Orokorrean, oso pozik gaude.

Egun baterako kontua zena proiektu serioago bihurtu da, beraz.

Atzera begiratzen dugunean, urte eta erdian zenbat eta zelako lekuetan jo dugun ikusita, oso pozik gaude. Ez genuen ezer espero. Lagun artean zeozer egitearren hasi ginen, eta zelan gabiltzan ikusita, ez genuen honelakorik imajinatu ere egiten. **Abesti klasikoak eta berriagoak jotzen dituzue. Zeren arabera egiten duzue aukeraketa?**

Hasieran, gehien bat, errepertorioa handitzen joan gara. Lehenengo kontzertuetan, errepertorioa betetzeagaitik edo, ordubeteko emanaldia betetzeko adina abesti jotzen genuen, gutxi gorabehera. Gero, kontzertua

luzatzeko eskatzen ziguten, eta apurka-apurka abesti gehiago sartzen joan gara. Azkenetako abesti sorta ederra osatu dugu, eta taldekideok gogokoago ditugun abestiak jotzen ditugu. Ni, adibidez, azkenaldian Tatxers taldearen musika entzuten nabil, eta haien kanta jotzea proposatu diet taldekideei. Abestiak ikasi eta jo egiten ditugu; besteren batek beste ezer proposatzen badu, horregaz aurrera egiten dugu. Abesti batzuk zaleek eskatuta jo izan ditugu. Orain, kantu berriak geuk entzuten ditugulako jotzen ditugu. Badaude behin baino jo ez ditugun kanta. Lokalean bataren edo

bestearen alde egiten dugu, baina, orokorrean, gehienok antzeko abestiak gogoko ditugu.

Iurretako plazan oso gustuko dituzte erromeriak. Gogotsu zaudete kontzerturako?

Bai! Etxe ondoan dago, eta urtero joaten gara jaietara. Oraingoan berezia izango da, gainera. Urtero joaten garen jaiak dira eta aurten guk jo ahal izatea sekulakoa da. Gainera, Skabidean taldeagaz joko dugu, eta taldekideok oso gustuko dugun taldea da; asko entzuten dugu gure egunerokotasunean. Euren ondoren jotzen dugunez, plaza beterik egotea espero dugu. Gogo handia dugu, ilusio itzela.



Kontzertu bateko irudi bat.



IKUSPEGI BERRIA

Eguneko menua
astelehenetik barikura

Asteburuetan
kartako menua

Pintxoak eta
errazioak egunero

Martitzena eta
eguztina itxita

Goiuria auzoa 12, 48215 Iurreta • 944 667 41 08

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

IZARBE

LANPARAK
OPARIAK
SUKALDEKO ETA
ETXEKO ALTZARIAK

Tel: 946 812 280
izarbek@izarbek.com

Bixente Kapanaga, 3
48215 Iurreta / Bizkaia

LOTERIA ETA APUSTUEN
ADMINISTRAZIOA
- IURRETA -

Dantziari kalea, 4 • Tel: 946 201 159

Loterías y Apuestas del Estado





anboto
CALDERERIA

GALDARAGINTZA
MEHE ETA ERDI
ASTUNA

Arriandi industrialdea 7A
48215 IURRETA
946 583 133 / 617 825 997
canboto@canboto.com

www.zuremenua.eus 688614162 info@zuremenua.eus

etxerako zein lantokirako catering zerbitzua

zuremenua
gozatzeko otorduak

ospakizunak • txokoak • herri bazkariak
jaiak • enpresa bazkariak • luntxak

A. M. IURRETA

Iurretako sanmigelak ate joka daude. Irailaren 28an lehertuko da festa, txapliguak jaurtita eta Doniel Atxa jasota, baina aurretik ere egongo da gozatzeko aukera. Jaien zurrunbiloan murgildu aurretik, kirolerako tartea egongo da, Iurretako XV. Mendi Martxagaz, irailaren 26an, zapatuan. Egun berean, paella txapelketa ere egingo dute, tabernariak antolatuta. Arratsaldean kirol ekitaldi gehiago egongo da, Kepa Arroitauregi frontoian: esku pilota eta pala partiduak, besteak beste. Gauean musika izango da protagonista. Rumbo Tijuana kontzertua emango du Askondon, eta 22:30ean Eusko Princess, Sedientos de Cumbia eta Zeker talde elorriarrak kontzertua joko dute; ondoren, Txirri eta Mirri musika jartzaileek goizaldera arte ipiniko dute musika. Domekan umeen eguna ospatuko dute eta aurtengo sanmigel jailetako nobedadeetarik baten txanda izango da: 10:00etatik 13:00etara bitartean, auto klasikoen erakusketa egingo dute Maspeko aparkalekuan. Irailaren 28a egun berezia da iurretarentzat, eta



Iazko San Migel bezperako irudi bat.

Iurretarrak gertu eta gogotsu daude Doniel Atxa jaso eta sanmigel jailetan murgiltzeko

Irailaren 28tik urriaren 4ra bitartean ospatuko dituzte sanmigelak lurretan

giro berezi hori goizetik igartzen da herriko txoko-bazter guztietan: goizean Montoi bueltan eta arratsaldetik aurrera plazan, batez ere, baina baita herri osoaren luze-zabalean. 18:30ean Doniel Atxa altxatuko dute, eta,

ondoren Iurretako dantzariak azken entsegua egingo dute. 22:30ean Aittuk bere erromeria doinuak joko ditu plazan.

Bigarren astebururako ere indarrak gorde beharko dira, egongo da-eta zertaz gozatu.

Urriaren 2an Pescaito Eguna egingo dute; iluntzean ekingo diote, El Reciclador 10 bakar-lariaren kontzertuagaz. 19:30ean izango da, Dantzari plazan. Tortilla lehiaketa eta bertso saioa ere urteroko hitzorduak

izango dira. Maddi Ane Txoperenak, Nerea Ibarzabalek, Maialen Lujanbiok, Unai Iturriagak eta Amets Arzalluzek egingo dute bertsoetan, eta Ainhoa Urienek ipiniko dizkie gaiak. Gauean Oxabi, Xaukena Xauk eta Totozer MJ artistek girotuko dute plaza.

Apirileko Feria

Urriaren 3an ohiko Mozorro Eguna ospatuko dute. Aurten Sevillako (Espainia) Apirileko Feria ekarriko dute Iurretara. Herri bazkariak eta kuadrillen ikuskizunek jantziko dute eguna. Zapatua borobiltzeko, Skabidean eta Errota taldeek kontzertua emango dute; plaza dantzan ipiniko dute euren doinuekin.

Horren guztiaren ondoren baten bati indarra geratzen bazaio, Errosario Egunean ere izango du zer egin eta zegaz gozatu. Egun horretan herri kirolak, dantza saioa eta nekazaritza eta artisautza azoka egingo dituzte, besteak beste. Gauean herri afaria eta erromeria egongo dira, Lorratz taldeagaz. Ohiko bertsoak kantatuta emango diete amaiera jaiiei.

DESQUACES PILASTRA

Fauste auzoa 18, Iurreta
Tel: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta deskutsatzeko baimendutako zentroa gara. Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.

Nervión

Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak

Celulosa Forestal

+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen

PABILIOIA SALGAI
Iurretan, Mercadona ondoan

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

1.190m²

Tel: 94.681.66.73 • Mug: 649 40 26 23 • zarateyelexpe.com

SERAPIO CALVO
Pladur - Aislamientos - Escayola

TABIKEAK, SABAIK, TRASDOSATUAK
Igeltsu-dekorazioa
Sabai desmuntagarriak • Isolatzeak

946 811 512 • 615 789 243
Bidebarrieta, 9 • 48215 Iurreta
info@serapiocalvo.es • www.serapiocalvo.es

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENGO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 25

- **ABADIÑO Etxahun Lekue eta Unai Iturriaga** Bertso afaria. Izena emateko: 655 740 367 / www.urkiola.eus. Urkiola Hotelean, 21:00etan.
- **DURANGO**
'Landabarrenako Lamia. Garai 1884- Mexiko Hiria 1970' Pilar Zubiaurren lanak. Arte eta Historia Museoan, abendura arte.
- **DURANGO Ingeles tailerra** Umeentzako ipuinak, eskulanak eta jolasak, 2-5 urte bitarteko umeentzat. Otamotzena auzogunean, 17:30ean.
- **DURANGO Rafa Peñafiel** Erakusketa. Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 27ra bitartean.
- **ELORRIO 'Rastrotik Elorrixora'** 1954tik 1956ra arte ateratako argazki artxiboa (Daniel Asua eta Hibaí Agorria). Iturri kultur etxean, urriaren 2ra arte.
- **ELORRIO '52 Hertz'** Antzerkia Ados Teatroyen eskutik. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **ZORNOTZA 'Ekialdea'** Erakusketa, Pintzelak elkarteak antolatuta. Zelaieta zentroan, irailaren 26ra arte.
- **ZORNOTZA Sanmigelak** Gaztedi Barria txarangaren animazioa, 20:00etan. Patata tortilla txapelketarako tortillen aurkezpena, 20:30ean. Mus txapelketa azkarra, 20:30ean (izen ematea bikoteko 30 euro, 20:00ak arte). Kittu taldea + DJ Edugarmar Music. San Migel Dueda auzoan.

ZAPATUA 26

- **ABADIÑO III. Ganbarru Zikloturista Martxa** Zelaietatik abiatuta, 08:30ean.
- **ABADIÑO Slow Times Blues Band** Kontzertua. Imine tabernan, 19:30ean.

- **ABADIÑO 'Macabro'** Antzerki L. César Duranen antzezlanak. Errota kultur etxean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Parrast'** Liburu aurkezpena. Artea liburu denda, 12:00etan.
- **DURANGO Show cooking-a** Miriam Ortiz chef integratiboaren eskutik, sasoiako produktuekin eta merkatuan dagoenagaz zenbait plater lantzeko aukera. Merkatu plazan, 10:00etatik 12:00etara.
- **DURANGO 'Andra Mari basilika'** Bisita gidatu baten bitartez, elizaren kanpoaldean eta barrualdean dauden bitxikeria eta istorioak ezagutzeko aukera egongo da. Turismo Bulegoan, 10:30etik 12:00etara (euskaraz) eta 12:30etik 14:00etara (gaztelaniaz).
- **DURANGO '52 Hertz'** Antzerkia Ados Teatroyen eskutik. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **DURANGO Izar Records Lehiaketaren** finala: Dorre + Slide + Alerta Petrov + Sweet Rage + Lorreine. Plateruenean, 21:00etan.
- **ZORNOTZA Sanmigelak** Baselizak zeharkatzeko ibilbidea, 10:00etan. Haurrentzako animazioa, 12:00etan. Igel txapelketa. Eta trikipotea, 13:00etan. Bakailao lehiaketa, 14:00etan. Briska txapelketa (izen ematea 5 euro), 17:00etan. Xaibor, 17:00etan. Hestebeteen altuerako txapelketa, 18:30ean. Jarraian umeen mozorrorik onenaren saria. Zutik erromeria, 21:00etan. Ondoren, DJa. Nagusien mozorrorik onenaren saria, gauerdian. San Migel Dueda auzoan.

DOMEKA 27

- **ABADIÑO Umeen Euskal Jaia** Taldeak batzea probalekuan, 10:30ean.



JON IRAUNDEGI

BERRIZ Kontzertua Jurgi Ekizak *Argitzala* diskoa aurkeztuko du Berrizen. Agertokietatik aldi baterako erretiratu baino lehenago egingo duen emanaldiak formatu intimu eta moldakorra izango du. Berrizko Okango auzoan, irailaren 26an, 19:30ean.

- Kalejira, 11:30ean. Bazkaltzera, 14:00etan. Elkargunea probalekuan, 16:30ean. Dantzarien alardea, udaletxearen aurrean, 17:00etan. Zelaietan.
- **DURANGO 'Durango kantari'** Merkatu plaza berrian, 12:30etik 13:30era.
- **DURANGO Berbaldi dibulgatiboak: 'Garuna eta adimena'.** *Descifrando el cerebro con la neurotecnología* (Iñigo Gabilondo MD, PhD, Ikerbasque ikerketa-irakaslea, BioBizkaia, Barakaldo), 17:15ean. *Los neuro-derechos al rescate de nuestro yo* (José Vicente Lafuente MD, PhD, Neurozientziak Saileko irakaslea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, EHU, Leioa), 17:45ean. Atsedendaldia, 18:15ean. *La importancia de agisnar significados saludables en la vida* (Pascual Gargiulo MD, PhD, Psikiatria Saileko irakaslea, Medikuntza Zientzien Fakultatea, Cuyo-ko Unibertsitate Nazionala, Mendoza, Argentina), 19:00etan. *Aprender a pensar. El pensamiento cuidadoso* (Irene Lafuente PhD, Filosofia Saileko irakaslea, Derio BHI, Bizkaia), 19:30ean. Agurra (Jose Vicente

- Lafuente), 20:00etan. San Agustin kulturgunean.
- **ELORRIO 'El carnaval animal'** Publiko osoarentzako antzerkia Luz, Micro y Punto konpainiaren eskutik. Arriola antzokian, 17:00etan.
- **ZALDIBAR 'Ausentziak: heriotzaren ondoko poemak'** Errezitaldia Mari Luz Estebanegaz eta Oihana Aranagaz, Danele Sarriugartek gidatuta. *Hodeiek erre egiten dute* erakusketaren itxiera ekitaldiaren barruan. Xerra espazioan, 12:00etan. **ZORNOTZA Sanmigelak.** Meza, 12:00etan. Jarraian, luntxa trikitilarietara. Udabarri dantza taldea, 13:00etan. Bazkari herrikoia, 14:30ean. 'Gaur zirkura goaz', 16:30ean. Jarraian, bingoa. Zornotzako musika banda, 19:30ean. Errifaren zozketa, 20:30ean. San Migel Dueda auzoan.

MARTITZENA 29

- **DURANGO Berbaldi dibulgatiboak: 'Garuna eta osasuna'.** *Los "txokitos" del cerebro* (Susana Bulnes, PhD, Neurozientziak Saileko irakaslea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, EHU, Leioa), 17:00etan. *Parkinson gaixotasuna usaindu daiteke?* (Maidier

- Zubelzu, PhD, Farmakologia Saileko irakaslea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, EHU, Leioa), 17:30ean. *Heste-garun ardatza: gure bigarren garuna ezagutzen* (Jone Razkin, PhD, Doktoretza-ondoko ikertzailea, Karolinska Institutet, Estokolmo, Suedia), 18:00etan. *La higiene bucal y la neurodegeneración* (Ana M^a García, PhD, Estomatologia Saileko irakaslea eta zuzendaria, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, EHU, Leioa), 18:30ean. *Afectación neurológica en la Condición COVID Persistente* (Naiara Azcue, PhD, Doktoretza-ondoko ikertzailea, Biobizkaia, Barakaldo), 19:00etan. Dibulgazio jardunaldien itxiera (José Vicente Lafuente), 19:30ean. San Agustin kulturgunean.
- **ZORNOTZA Sanmigelak** Meza, eta jarraian luntxa trikitilarietara. San Migel Dueda auzoan, 12:00etan.

EGUAZTENA 30

- **ZALDIBAR Deialdia** Euskara Plana diseinatzeko batzar irekia. Udaletxeko pleno aretoan, 18:00etan.

BARIKUA 2

- **ABADIÑO Ez dok bape** Kontzertua. Amaraun Arte Fabrikan, 20:00etan.
- **ABADIÑO 'Baga ala ez ga?'** Antzerkia Ainhoa Etxebarria Gomez eta Nerea Gartzia Gartzia aktoreekin. Txanpota kultur etxean, 20:00etan.

URRIAK 3


- **BERRIZ 'Kaka'** Xanti Agirrezabalak eta Erika Olaizolak sortutako antzezlanak. Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Nor naizen baneki'** Artedrama eta Axut! konpainiek aurkeztutako antzezlanak. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

- La bola negra** Barikua 25: 17:30, 19:30. Zapateria 26: 19:00, 21:00. Domeka 27: 19:00. Astelehena 28: 18:30. Martitzena 29: 18:30. Eguaztena 30: 19:00. **En el corazón de la bestia** Barikua 25: 17:30, 20:30. Zapateria 26: 16:45, 19:00, 22:00. Domeka 27: 16:45, 19:30. Astelehena 28: 18:00, 20:15. Martitzena 29: 18:00, 20:15. Eguaztena 30: 19:00. **Resident Evil** Barikua 25: 18:30. Zapateria 26: 19:00, 21:00. Domeka 27: 19:30. Astelehena 28: 18:00. Martitzena 29: 20:15. Eguaztena 30: 19:00. **Coyote Vs ACME** Barikua 25: 18:00. Zapateria 26: 16:45. Domeka 27: 16:45. Astelehena 28: 20:15. Martitzena 29: 18:00. **La familia Dino** Zapateria 26: 16:45. Domeka 27: 16:45.



ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

- El ser querido** Zapateria 26: 20:00. Domeka 27: 20:00. Astelehena 28: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

- La Odisea** Barikua 25: 20:00. Zapateria 26: 20:00. Domeka 27: 20:00. Astelehena 28: 20:15. **Rufus, igeri egiten ez zekien sugea** Zapateria 26: 17:00. Domeka 27: 17:00.

ESKUBALOIA

"Jende gehiagok probatuko balu, askok eskubaloian jokatzeari aukeratuko lukete"

KARLE ARRIAGA LOPEZ IBAIZABAL ESKUBALOI TALDEA

Joseba Derteano DURANGO

Ibaizabal Eskubaloi Taldeak beste denboraldi bati ekingo dio laister. Karle Arriaga Lopez (Durango, 2003) senior taldeko kapitainetarikoa bat da eta txikitatik dabil eskubaloian, umetan kirol hau probatu zuenetik. Bere ustez, eskubaloia kirol erakargarria da berez, eta jendea erakartzeko gakoa ezagutaraztea da. Horregaitik, klubak kirolari ikusgarritasuna emateko egiten duen lana goraipatu du.

Zelan zaletu zinen eskubaloira?

Jesuitetan ikasi dut. Han saskibaloian, futboleko edo eskubaloian aritzeko aukera izan nuen. Bederatzi urtegar eskubaloia aukeratu nuen.

Zerk erakarri zintuen beste kirolekin alderatuta?

Kirol desberdina da eta probatu nuen unetik gustatu zitzaidan. Kontaktuzko jokoa da, azkarra. Jokoari abiadura ematen zaion momentua asko gustatzen zait. Bizi jokatzen da. Hemen ez da saskibaloia eta futbola bezain ezaguna, baina jendeak probatuko balu esango nuke askok aukeratuko lukeela.

Zenbat urte daramazu lehenengo taldean?

Aurtengoa bigarren urtea dut. Gazteagotan ere ibili izan naiz, baina 2020an utzi egin nuen, ikasketengaitik. Baina eskubaloian eta taldeko giroaren falta igarri nuen eta bueltatu egin nintzen.

Zelako taldea duzue aurten?

Hamalau jokalarik gaude eta adin desberdinetakoak gara; gazteenak 18 urte ditu, eta zaharrenak 31. Gazteenek esperientziarik handieneko jokalariekin ikasten dute. Taldean oso hartu-eman ona dugu. Alde horretatik, ezin dut gehiago eskatu. Taldeko giroa da ni berriro eskubaloira bueltatzeko arrazoi bat eta ez nuke ezergaitik ere aldatuko.

Bizkaiko ligan jokatzen duzue. Zer helburu duzue denboraldi berrira begira?

Eskubaloiaz gozatzea, gure one-na ematea eta ahalik eta goren amaitzea. Ez dugu mailaz igotzeko edo antzerako presiorik. Urterik urtera gure errendimendua hobetzen ahalegintzen gara. Entrenatzaile bi ditugu. Bat berria da eta besteagaz urte asko daramatzagu. Oso talde ona osatzen dutela esango nuke.

Ibaizabalen geroago eta talde eta jokalarik gehiago dagoela ikusteak zelan sentiarazten zaitu?

Harrotasuna sentitzen dut. Emakumeen talde gehiago egon da beti eta horrela jarraitzen du. Kimuetan, haur-kategorian eta gazteetan taldeak izatea garrantzitsua da guretzat, horrek erreleboa badagoela erakusten duelako. Mutiletan ere talde bi daude eta ea etorkizunean gehiago diren. Geroago eta familia handiagoa garela ikusten dut eta horrek poza ematen dit. Eskubaloiak merezi du, kirol eder delako. Jende askok urte askoan gogor lan egin du gaur egun gauden egoerara heltzeko, eta haien lana nabarmendu gura dut. Esaterako, azken urteetan hainbat ekintza egin da Durangon eta inguruko herrietan kirola ezagutarazteko. Lan horren fruituak jasotzen gabiltza eta etorkizunean bide honetatik jarraitzea espero dut.

"Hainbat ekintza egin da eskubaloia ezagutarazteko, eta lanaren fruituak jasotzen gabiltza"



Karle Arriaga, joan zen barikuan, Landako kiroldegian egindako aurkezpenean.

Iaz baino jokalarik eta talde gehiago ligari ekiteko

Ibaizabal Eskubaloi Taldeak denboraldi honetako taldeak aurkeztu zituen joan zen barikuan Landako kiroldegian egindako ekitaldian. Klubak hazten jarritzen du. Zazpi talde irten ziren

kantxaren erdira, iaz baino bat gehiago. Kimu mailako mistoa da talde berria. Jokalarik kopuruan ere gora egin dute; 100 bat dituzte aurten, iaz baino 15-20 gehiago.



Aurten zazpi taldek osatzen dute Ibaizabal Eskubaloi Taldea. IBAIZABAL

Aurreko urteetan legez, talderik gehienak emakumeenak dira: zazpitik bost. Jokalarik kopuruaren hazkundera hainbat ekimenen emaitza dela azaldu du Juanjo Gude klubeko presidente eta entrenatzaileak. Besteak beste, "jokalariek erakartzeko programak eta sare sozialetako lana" aipatu ditu. Horrez gainera, klubak ekitaldiak antolatzen ditu eskubaloia ikusgarritasuna emateko: iaz, esaterako, eskola kiroleko haur kategoriak finalak egin zituzten Durangon, eta Traña-Matienan senior emakumeen Euskadiko

IAZ EUSKADI MAILARA IGOTZEKO FASEA ANTOLATU ZUTEN DURANGON, KIROLA EZAGUTARA EMATEKO

kategoriara igotzeko fasea antolatu zuten. Orain urte bi, Hego Euskal Herriko taldeekin torneo bat egin zuten, 400 bat lagun batu zituen. "Horrelako ekitaldiek kluba ezagutarazten laguntzen dute. Gazteek giro ona dagoela ikusi eta batzuek probatzea erabakitzen dute", azaldu du Gudek. Denboraldi amaierarako beste ekitaldi "esanguratsu" bat antolatzen ahalegintzen direla aurreratu du.

Klubaren beste lan ildoetarikoa bat inguruko ikastetxeekin elkarlanean aritzea da, haur eta gazteek eskubaloia ezagutzeko aukera izan dezaten. Mutilak erakartzea "gatxagoa" dela dio Gudek, askok futbola aukeratzen dutelako. "Pena da. Mutil askok futbola aukeratzen dute. Futboleko hainbeste dabilenez, denek ezin dute jokatu, ez dagoelako tokirik denentzat. Guk Ibaizabal Eskubaloi Taldean denek jokatzeari ematen diogu lehentasuna, eta laguntasuna eta halako balioak txertatzen ahalegintzen gara", adierazi du Gudek.



Tabirakoko jokalariai entrenatzailearen aginduak entzuten hutsarte batean. TABIRAKO

SASKIBALOIA

Tabirako Baque eta Teknei Zornotza Euskal Koparen bila Durangon

J.D. DURANGO
Saskibaloi denboraldia hasiberria den arren, lehenengo titulua asteburu honetan erabakiko da: Hirugarren FEB Mailako Euskal Kopa. Eskualdeko talde bi ari-tuko dira bertan: Durangoko Tabirako Baque eta Zornotzako Teknei Zornotza. Tabirakok za-leen laguntza izango du, Lauko Finala Landako kiroldegian jokatu-ko da eta.

Etxe-koek zapatuan jokatu-ko dute finalerdia, 17:00etan, Tolo-sako Iruki Take taldearen aurka. Ondoren, 19:00etan, Teknei Zornotzaren eta Zarauzko Ulacia ZKEren arteko partidua hasiko da. Talde irabazle biek domekan jokatu-ko dute finala, 18:00etan.

Emakumeen talde nagusiak asteburu honetan hasiko du bere mailako Euskal Kopa. Domekan, 12:00etan, final-zortzirenetako partidua jokatu-ko du Landako kiroldegian, Hondarribiaren aurka. Irabaziz gero, hurrengo fasera sailkatu-ko litzateke.

54 talde klubean
Tabirako Saskibaloi Taldea senior mailako taldeak baino askoz ere gehiago da. Hori argi geratu zen joan zen barikuan Durangoko Merkatuko kantxan egin-dako aurkezpenean. Plaza txiki geratu zen klubeko 54 taldeei tokia egiteko; euren arteko 18 talde federatuak dira, eta gainera-koak eskola kirolekoak.

XAKEA

Abadiñoko xake torneoak 30. aldia beteko du domekan

J.D. ABADIÑO
Abadiño Xake Taldeak xake torneo antolatuko du domeka honetarako. Aurten 30. aldia beteko du eta zortzigarren urtez Iker Garitaonandiaren oroime-nezkoa izango da. Antolatzaileek adierazi dutenez, ekimenak Eus-kadiko eta Kantabriako 75 bat xakelari batuko ditu. Torneoa Traña-Matienako Pino plazan jokatu-ko da, aurreko aldietan egin den moduan. Torneoak goiz osoa iraungo du. Lehenengo partidak 10:00etan hasiko dira, eta azkenak 13:30 inguruan.

Partida azkarreko torneo antolatuko da. Partida azkarrak denbora-tarte laburreko partidak dira, antolatzaileek zehaztu du-tenez. Jokalari bakoitzak den-bora gutxi izaten du mugimen-duak egiteko, eta horrek erritmo biziagoa ematen dio jokoari.



Txapelketa Pino plazan jokatu-ko da.



Sasikoa areto futbol taldea, aurtengo partidua batean. SASIKOA

ARETO FUTBOLA

Sasikoak eta Elorrioko Buskantzak derbi bategaz hasiko dute Euskal Liga

J.D. DURANGO
Areto futbolaren Euskal Liga asteburuan hasiko da eta Du-rangaldeko talde nagusi biek, Sasikoa Durangok eta Elorrioko Buskantzak, elkarren aurkako derbi bategaz ekingo diote den-boraldiari. Partidua domekan izango da, 12:00etan, Durangoko Landako kiroldegian.

Durangarrak protagonista dira egunotan. 30 urte bete dira klu-ba sortu zenetik, eta, hori dela eta, San Fausto jaietako txupi-nazoa eurek botako dute, hiru hamarkadatan Durangon areto futbola bultzatzen egindako la-naren esker onez.

Baina udaletxe-ko balkoira irteteko eguna heldu bitartean,

kantxan zentratu-ko dira. Eta ez asteburu-ko derbian bakarrik, beste erronka batzuk ere badi-tuzte eta. Dagoeneko Euskal Kopako kanporaketa bi gain-ditu dituzte. Lehenengo, Sestao taldea menderatu zuten, 3-4, Sestaon. Eta joan zen asteburuan beste hainbeste egin zuten Elo-rrieta taldeagaz, 5-4, Durangon. Markagailuan atzetik hasi arren, partiduari buelta eman eta Euskal Kopako final-zortzi-renetarako sailkatu ziren. Da-tozen hileetan, Euskal Ligak atsedean hartu-ko du eta ligara bideratu-ko da protagonismo osoa. Kopari dagokion hurren-go kanporaketa abenduaren 8an jokatu-ko da.

JOKALDIA



ANTXOKA GERRIKABEITIA URIARTE LARRASOLOETA XAKE TALDEA

Emakumeak xakean

Munduko txirrindularitza txapelketak telebistan zirela, niretzat berria den errelebo-kako karrera sortu dutela ohartu naiz. Badirudi kirol askok joera hori hartu dutela, bi generoetako partaideak talde berean sartu eta konpetitzen jartzea. Aldi berean, kirol guztietan diru inbertsio handia egin dela ikus genezake. Honek, bisibilitatea emateaz gain, emakume askori beraien kirola bizibide egiteko aukera eman die. Horrek guztiak xakean emakumeen eta gizonen lekua non dagoen ekarri dit burura. Xakeak bere ezaugarriak ditu eta profesional mailan ez dago beste kirolekin izan daitekeen zailtasunik elkarrekin konpetitzerako orduan. Nahiz eta hori horrela izan, beste kirol askotan bezala emakumeenak diren txapelketak bultzatu dira. Xakean, maila handieneko jokalariek parte hartzen duten zen-bait txapelketatan parte hartzeko aukera dute emaku-


meek. Baina diru-sariak eta babesleak bilatzeko be-harrrak txapelketa horietatik urruntzen dituzte. Beraz, xake mailan ez da erraza profesional bihurtzea, nahiz eta emakume gehiagori zabaldu zaien profesional

"Polgarrek argi du, segregazio honek xakean emakume xakelarien aspirazioak mugatzen ditu"

bihurtzeko aukera. Aukera hori beraien artean jokatzeko diren txapelketetara mugatua dago. Errealitatea da gaur egungo emakume onenek, elitean daudenek, emakumeen txapelketetan bakarrik jokatzeko dela joera. Judith Polgar ez dago bide honekin ados. Emakume hau, 12 urte zituenetik bere erretiroa heldu zen egunera arte, munduko 100 jokalaria onenen artean izan zen, eta urte horietatik guztietatik gutxienez hamarretan xakeko super elitearen zati izan zen. Berak argi du. Segregazio honek emakume jokalarien aspirazioak mugatzen ditu xakean. Eta kontrakoa beharko luke, ahalik eta mailarik handienean lehiatzea izan beharko lukete helburu. Bere ustez, txapelketa eta titulu bere-ziek, ahaldundu beharrean, bereizketa eragiten dute, eta oztipo psikologiko bat sortzen dute emakume jo-kalariengan.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 25, BARIKUA 09:00-09:00 Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango Melero, San Pedro 31 - Zornotza
IRAILAK 26, ZAPATUA 09:00-09:00 Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 27, DOMEKA 09:00-09:00 Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 28, ASTELEHENA 09:00-09:00 Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 29, MARTITZENA 09:00-09:00 Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 30, EGUAZTENA 09:00-09:00 Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 1, EGUENA 09:00-09:00 Navarro, Artekalea 6 - Durango Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduz zabalik daueden farmaziak daude zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak


ZORION AGURRAK



Saioa
Hilaren 24an. Joyeux anniversaire. Tés amis.



Eneko
Irailaren 28an Enekok 6 urte egingo ditu eta familia guztiak zoriondu gura dugu. Jarraitu hain bihotz onekoa izaten! Asko maite zaitugu.



Jon
Zorionak, Jon! 13 urte! Asko disfrutau egune eta jarraitu zaren modokue izaten, zintzoa eta maitakorra. Asko maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

GOZATU GOZOTEGIA



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

☎ 661 401 400
f Gozatu Gozategia
@ gozatugozategia

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

ZENBAT EZAGUTZEN DUZU DURANGO



DIBA

KOOPERATIBA

Durangaldeko

Baserritarren

Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz

artekalea 23, durango

946 810 776

liburudenda

info@hitzliburudenda.com

#SAL

DUE

NAK



INMOBILIARIAK

 ERAIKUNTZA BERRIA AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. 376.000 € -tik aurrera. ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. C.E.E=B. AUKERA SAN INAZIO Garajea. 11.000 €. ALLUITZ Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehioa 2 kaletara. 110.000 €. ETXEBIZITZAK SALGAI ABADIÑO: 142 m2. 4 logela eta 2 komun. Terraza. 40 m2-ko garaje itxia eta 80 m2-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. C.E.E=F 325.000 €. TXIBITENA: 103 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela-jangela. Garajea eta ganbara. C.E.E=D 365.000 €. MAÑARIA: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €. BASERRIA, ZORNOTZA Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. 470.000 €. C.E.E=F MUNTSARATZ Baserrria. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €. GARAI 2.759 m2-ko lursaila. Lursail eraikigarria. 240.000 €. LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI ZABALE: 76 m2. Instalazio elektrokoarekin. Bi kaleetara sarrera. 66.000 €. IZURTZA: Pabilioia. 261 m2. 261 m²-ko solairuarte. Egokitua. 195.000 €. MURUETA TORRE 44 m2. Kearentzako irteera. 50.000 € ASKATASUN ETORBIDEA 60m2. Lokal egokitua.. 125.000 € MATIENA Trañabarren. 60m2.Salgai. etxebizitza egiteko aukera. 70.000 € DURANGO 100m2. Lokala. Alde zaharrear. Egokitua. 115.000 € MASPE 150m2. Lokala. 90.000 € KOMENTUKALE 100m2. Lokala. Egokitua. 160.000 € IURRETA (Bixente Kapanaga). 117m2. Lokala. 75.000 € ASTEPE 40m2.Lokala. egokitua. 70.000 € FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. Egokitua. Erakusleihoa. Alokairuan. 2.900 €. DURANGO Bulegoa. Erdialdean. 1.go solairua. 650 €. GARAJEAK SALGAI MATIENA: Trañabarren. Salgai. 16.000 €. ALLUITZ Garajea. Salgai, 15.000 €. ASKATASUN ETORBIDEA Garaje itxia. 20.000 €. MONTEBIDEO Garajea. 10.000 €. MONAGOTORRE Garajea. Erdigunean. 13.000 €. PLATERUEN PLAZA: Garajea trastelekuarekin. 22.000 €. MONTEBIDEO Garajea. 10.000 €. MONAGOTORRE: Garajea. Erdigunean. 13.000 €. PLATERUEN PLAZA: Garajea trastelekuarekin. 22.000 €.	 ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO ZUMALAKARREGI 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria. MONTEBIDEO Berriztatzeko. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak. MONTEBIDEO 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia. FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatzeko. FRANTZISKO IBARRA 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia. GOIENKALEA 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. GOIENKALEA 2. solairua. Halla, 3 logela, sukaldea, 2 komun eta egongela. Bizitzaren sartzeko moduan. BARRENKALEA Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua. LURSAILAK SALGAI URRUTXUA 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan. BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI IURRETA Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea. IURRETA Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko. ABADIÑO Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara. BERRIZ Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz. MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko. BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne. DURANGO ERMODO KALEAN 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin. LOKALAK ALOKAIRUAN DURANGO Lekker taberna alokatzen da. 100 m2. 40 m2-ko jantokia, sukaldea, komunak. Zure negozioarako aproposa. ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu. LOKAL INDUSTRIALA SALGAI MATIENA 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia. ELORRIO 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest. LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ BERRIZ Eitua industrialdea. 600 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.	  C. E. E.: E. 148.000€. DURANGO: SAN FAUSTO: 47,66m2. Egongela-sukalde-jangela jantzia, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko errezatazuna. Gaur egun alokatuta dago. ITE-a pasatutakoa.  C.E.E=G 224.000 € MAÑARIA: ANDRA MARI: 67,52 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna duxarekin. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztazuna. 20 m²-ko txokoa du, guztiz jantzia eta komunarekin, etxebizitzaren azpian kokatua, eta apartamentu bihurtzeko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzarik behar.  C.E.E.=E 164.000 € ABADIÑO: SAN TROKAZ: 33,65 m2. Egongela-sukalde-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.  C. E. E.: E. 204.000€. DURANGO: TORRE DE LARIZ: 98 m2. Egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. 2 balkoi. Eraberritze integrala behar du. Norberaren gustura diseinatu eta egokitzeko aukera ematen du. Etxe erdiak kanpora ematen du. Argitsua. Erdigunean. Zonalde berdeak.  Salgai: 16.000 € + BEZ-a. MATIENA: TRAÑAERROTA: Garajeak lehenengo eta bigarren solairuetan. Duela gutxi eraikitako eraikina.	 BERRIA BERRIZ ZENGOTITABENGOA KALEA: 4 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. 318.000 € / E.E.Z=Bidean. DURANGO ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 € / E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €. BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A ZABALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 € / E.E.Z=E ABADIÑO DENDARIKOA: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €. ATXONDO ARTEKALE, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €. BERRIZ BIDEGAIN KALEA: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 € / E.E.Z=Bidean MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzorua. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €. GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO ALLUITZ KALEA: Garaje itxia. 25.000 € BARANDIARAN: Gajea. 80 € / hilean. ANTSO EZTEGIZ: Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia. KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €. KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €. MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €. LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E ANDRA MARI KALEA: 62 m2-ko lokala. 850 € / hilean / E.E.Z=Bidean. ARKOTXA KALEA: 122 m2-ko lokala. 900 € / hilean. E.E.Z=Bidean. BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean. IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. LEHEN 240.000 € / ORAIN 198.000 € E.E.Z=E KALEBARRIA: 82 m2-ko. 92.390 € / E.E.Z=E ABADIÑO SAN ANDRES KALEA: 11 m2-ko lokala. 40.000 € / E.E.Z=bidean. ALIENDALDE: 285 m2-ko pabilioia. LEHEN 250.000€ / ORAIN 210.000 € IURRETA ZUBIAURRE: 11 m2-ko lokala. 20.000€ negoziagarriak.
--	---	--	--

Beroa



MERTXE MUGIKA
BALANZATEGI

Sartu gara udazkenean, niretzat urtarorik politena; izan ere, biziki maite ditut sasoi honetako koloreak. Baina aurren uda osoan egon dira gure bazterrak "udazkenatuta", lehortek gogor dihardu eta! Zalanza barik udako bero-sapa izan dugu hizpide aspaldion. Itsasoko ura inoizko beroena, suteak han-hemenka, ortuariak eskas,... Adituek diotenez, horrelako udak izango dira hurrengoak ere. Beroak eragindakoein zer pentsatu egongo da. Niri, esaterako, hauek etorri zaizkit burura: aire giro-tuaren demanda, desastre klimatikoaren ondorioak, hainbat lanbidetan beroa jasateko hartu beharreko neurriak, uztak jasotzeko datak...

Zer egin ahal dugu aurrerantzean sarriago biziko dugunari aurre egiteko? Erantzuna ez da batere erraza. Batetik, arazo globala da eta agintariak berandu dabilta. Bestetik, uste dut gertuko erakundeek badutela zertan eragin: porlana gutxitzeaz batera berdeguneak sortu, babes klimatikorako irizpideak zehaztu, arnaguneetarako baliabideak ezarri,...

Eta norbanakook zertarako gaude prest? Uste dut guk geuk ere badugula non eragin: kotxea partekatu, bidaiatzeko erei erreparatu, uraren kontsumo arduratsua egin, gertukoa erosi, ... Egia da, bai, norberarengandik hasi behar dugu, baina hurkoari eskatu ere eskatu behar diogu.

"Bezeroek Georgiako janarian zuten interesa ikusita, hango otorduak ematen hasi ginen"

ESTATE SAMKHARADZE ETA INGA MAGLAPERIDZE JANDAKI

A. Basauri DURANGO

Estate Samkharadze (Georgia, 1993) eta Inga Maglaperidze (Georgia, 1992) orain bederatzi urte heldu ziren Euskal Herrira; Iruñean eta Bilbon bizi ondoren, sei urte dira Durangaldean bizi direla. Joan zen urtarrilean Jandaki zabaldu zuten Durangon; etxeko plater georgiarrak ematen dituzte bertan.

Durangaldera heldu aurretik, bide luzea egin duzue.

Estate Samkharadze: Georgiatik irten gura genuen, ezin genuen han jarraitu. Poloniara joan nintzen lanera, ni bakarrik. Baina emaztea eta semea eraman ezin nituela ikusita, hona etortzea erabaki genuen. Bartzelonan ere egon ginen Euskal Herrira etorri aurretik. Jainkoaren laguntzagaz gaude hemen. Bide asko zeuden egiteko, baina hona heldu gara, Jandaki jatetxea zabaltzera. Aurretik, Atxondon lan egin nuen eta hango nagusiak, Josek, asko lagundu dit. Berari esker gaude hemen.

Durangaldean finkatu aurretik Sevillan bizi izan zinenen.

I.M.: Bai. Sevillara egokitzea asko kostatu zitzaigun. Bilbora bueltatzeko ilusioa genuen eta Estatek lana lortu zuen Atxondon. Bera etorri zen lehenengo, eta gero semea eta biok. Gero, alaba biak jaio ziren. Elorrion etorri ginen, baina orain Zaldibarren bizi gara.

E.S.: Durangaldea Georgiaren oso antzekoa da: Urkiola, mendia, natura... Gatx izango litzateke hemendik joatea.



Estate Samkharadze eta Inga Maglaperidze, Jandaki jatetxean.

Ondo egokitu zarete Durangaldera?

E.S.: Oso ondo. Madrilen, Bartzelonan... soldata hobia duten lagunak deitu izan didate, hara joateko. Baina hemendik inora joatekotan Georgiara joango ginen. Euskaldunak arduratsuak zarete, berbako pertsonak. Aurrez aurreko hartu-emanak gusatzen zaizue.

I.M.: Une txarretan beti sortu da zeozer hemen geratzeko.

Urtarrilean Jandaki zabaldu zenuten.

E.S.: Tradizio georgiarrak ekarri gura dugu, eta hango etxeko janaria eskaini. Antzekotasunak

Motzean

Georgiako plater bat?

Biak: Jinkali.

Euskal plater bat?

I.M.: Dilistak txorizoagaz.

E.S.: Patata tortilla

Jatetxerako enbaxadore lez gobidatuko zenuke...

Biak: Ilia Topuria.

Georgiako zein leku duzue gogoan?

I.M.: Kutaisi.

E.S.: Jandaki.

dituzten kultura biak uztartu gura genituzke. Izan ere, euskaldunoi ere gustatzen zaizue jan-edana ipini eta berba egitea, barre egitea... Euskal Herriari oso eskertuta nago, nire jaioterria den Jandakiren zati bat ekartzeko aukera emateagaitik. **I.M.:** Ogiagaz, enpanadekin, Kaukasoko pasteekin... hasi ginen. Eta bezeroen interesagaitik hasi ginen bazkariak eta afariak ematen. Ahoz ahokoari eskerrak joan gara zabaltzen, eta apurka gabil-tza bidea egiten, eta ikasten. Janari naturala eta freskoa eskaintzen dugu. Egiten duguna maitasunez egiten dugu eta bezeroek badakite. Oso eskertuta gaude. **Georgiako gastronomia modan eigo dago. Igarri duzue hori?**

E.S.: Topuria, Mamardashvili, Kvaratskhelia... kirolari ezagunak dira eta Georgiako kulturak interesa sortu du. Herrialde baten kulturaren zati handia da gastronomia. Georgia oso antzinako herria da, munduko lehenengo ardoa han egin zen.

Zelakoa da Georgiako gastronomia?

E.S.: Georgiako eskualde bakoitzak janari eta ardo berezia du, propioa. Bakoitzeko onenaren batura da gure gastronomia; gazta, intxaurrak eta okela asko erabiltzen ditugu. Tbilisin igarri daiteke gehien.

Jandakin probatzeko plater bat?

E.S.: Datozen gehienek ajaluria probatzen dute.

Euskaldunok ausartzen gara zaporre berriein?

E.S.: Jatunak zarete eta zaporeak ondo ulertzen dituzue.

I.M.: Bildur apur bat dago, ez zaudete espeziatara ohituta. Baina oso suabe erabiltzen ditugu.

Hemengo zerk erakarri zaituzte?

E. S.: Jendea zoriontsu eta lasai bizi da; eta oso atseginak dira.

E.M.: Aske, lasai eta babestuta sentitzen gara.



XXVII. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA

URRIAK 4

11:00-14:00 Olaburu kalea IURRETA
TXAHALA BURDUNTZI ERARA
ARTISAUTZA
UMEENTZAKO TAILERRAK

